

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

466

97/2024 EBAZPENA, abenduaren 20koa, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Saioa Olivares Goitia andrea izendatzen baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko Errehabilitazioko Terapien Unitatean Gainbegirale, izendapen askez.

Abuztuaren 2ko 67/2024 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko Errehabilitazioko Terapien Unitatean Gainbegirale lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egin zen.

Epaimahaiak aurkeztutako eskabideen balorazioa eta dagokion izendapen-proposamena egin ondoren, eta Saioa Olivares Goitia andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan izanik, erabaki du hura izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitaleko Errehabilitazioko Terapien Unitatean gainbegirale, izendapen askez.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Saioa Olivares Goitia andrea Errehabilitazioko Terapien Unitatean gainbegirale izendatzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Gorlizko Ospitalean.

Bigarrena.– Izendapen honek 2024ko abenduaren 21etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapen askeko prozeduraren bidez lanpostuetarako izendatutako langileak diskrezionalki kendu ahal izango ditu kargutik izendapena egin zuen organoak. Lanpostua uzteak edo lanpostutik aldatzeak beste lanpostu funtzional batera lekualdatzea ekarriko du, eta, nolana ere, interesdunak titular gisa duen kategoriaren berezko baldintzei eutsiko zaie, eta ezaugarri berberak dituen lanpostuari atxikiko zaio, lehentasunez izendapenaren aurretik betetzen zuen antolamendu- eta lurralde-eremu berean. Atxikipenak kargua utzi eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta Osakidetzan ezartzen den prozeduraren arabera egingo da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gorliz, 2024ko abenduaren 20a.

Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentea.

EB (3433/2004 Ebazpena, abenduaren 13koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Gorlizko Ospitaleko zuzendari-gerentearen edo zuzendarien karguak hutsik edo kargudun horiek kanpoan zein gaixorik daudenerako ordezkapen-erregimena ezartzen duena).

Gorlizko Ospitaleko zuzendari medikoa,
MARIA ISABEL MONTES ÁLVARO.